Kaixo, Olentzero.

Klixez beteriko gutun bat bidal niezazuke. Mundu-pakea eska niezazuke, pobrezia mundutik errotik kentzea. Baita eska niezazuke guda guztiei gaur bertan azkena ematea ere eta kezkatzeko gauza bakarra, gure mahaian janarrik gustukoena aurkitzea izan dadin; besteko kezkarik ez izatea.
Baina aurten zerbaitek esaten dit ausartu behar dudala gutun hau galdera batean oinarritzera, soilik eskaeretan oinarritzera baizik.

Zinez ezinbestekoa da zerbait zuri eskatzea? Nahiez beteta gaude, eta eskain diezadakezun edozein gauza, benetan garrantzitsuak diren gauzen eraginez ezerezean gelditzen da, esaterako nire zalantzen eta nire nahikeriaren eraginez.
Benetan onuragarria den zerbait nik desiratzen ditudan gauzen artean badago, opari iezadazu, baina oparia ez da objektua bera izango, objektua existitzen ez den nahiaren adierazpen zakarra eta hutsala soilik baita. Benetako bezuza nire larritasunak baretzea izango litzateke, beste artegatasunek eragindakoak.

Zer edo zer oparitu nahi badidazu, izateko arrazoi bat izan dadila, ispiluan nire burua ikusterakoan, derrigortzen nauena hari esatera barrutik minduta eta hutsik dagoen beste buru bat ez naizela. Utzidazu ni neure buruaren jabe izatea hemendik aurrera, neure egonezinen jabe izatea eta nahi dudanean haiek pausatzeko gai izatea, nire izatetik alde egiteko gogoen pisu berdina dutenean.
Opari iezadazu egoteko arrazoi bat, pasatu ditudan gau txarrak eta beilan egoteak ahazteko.

Eta zinez merezi dudala uste baduzu, hain txarto egon naizen denboraldia, hain espero izan dudan gauza batekin oreka dezakezu. Ez naiz inola ere eskatzen ari izugarrizko diru kopuruko kostua duen gauza batekin orekatzea, ezta erabateko zoriontasunarekin ere, ez baitut merezi; hainbeste borrokatu dudanagatik, nahi nuena lortzeak sortuko duen gogobetetasunarekin baizik.
Hain maite dudan pertsona baten eta bion eskuen arteko marruskadurarekin oreka daiteke, edota nigan logura sortzearekin, berriro lehen bezain amets itxaropentsuak amesteko gauza izateko.

Nire eskaria kontuan hartuko duzulakoan, agurtzen zaitut.